

Justizia klimatikoa

Inork ez ala denok. Klima larrialdia inork ez pairatzeko aldaketak bideratu ezean, behintzat guztiok paira dezagula: zuk –irakurle–, nik –Jenofa–, haiek –pobreak– eta haiek –aberatsak–. Satisfaziorik ez zidaten eragin Los Angeleseko suteek, baina justizia sentimendu bat, haatik, bai. Amamaren “pobre ala aberats, hiltzeko garaian denak berdinak gara” erranaz oroitu nintzen. Noizbait baieztapen berarekin hitz egin nahiko nuke klima aldaketaz ere: etorri behar badu etor dadila denontzat.

Suak kiskali zituen Hidden Hills, Pacific Palisades, Beverly Hills... Ultra-aberatsen mundu itxi eta mugatura sartu zitzairen sua. Milioiak ketan, eta suhiltzaile konpainia pribatuei deika aberatsak. “Pacific Palisadeseko etxea babesteko suhiltzaile pribatuak badauzka norbaitek? Behar gorrian gaude, inguruko etxe guztiak kiskaltzen ari dira. Edozein prezio ordaintzeko prest. Milesker” mezua zabaldu zuen ultra-aberats batek, desesperazioz, munduko aberatsena den Elon Musken sare sozialean. Dirua trukean, norbere interesen alde. Beti. Aberatsen gaitza.

1.300 milioi herritarren heina kontsumitzen dute munduko 50 aberatsenek. 50 horiek bezainbat kontsumituko bagenu guztiok, orduan, bi egunetan gaingaituko genuke karbono-aurrekontua –beroketa maila bizigarrian mantentzeko, gizateriak isuri dezakeen karbono kantitatea–. Bi egun. Herritar ohiko batek 834 urte beharko lituzke Elon Musken urte bakarreko kutsadura eragiteko –5.437 urte pobre batek–. Oxfam-en datuak dira.

Suak berdin-berdin kiskali zituen, duela hilabete, Mayotteko txabola-auzoak. Paradisukoa izanik ere, irla hartan ez dute enegarren etxebizitzarik aberatsek. Mayotten, %77 dira pobreziaren langaren pean. Aterpeen %38 txabolak dira. Bertako herritarren herena papergabea da. Miseria hori Frantziako Estatuaren zigilupean, 1841ean kolonizatu zituelako. Aurreko abenduko zikloiak zenbat hil zituen ez dakigu eta ez dugu sekulan jakinen. Berdin zaigulako. “Milaka” edo “dozenaka mila” direla badakigu, baina ofizialki “39” dira. 39 horiek, erroldatuak izanen ziren, frantziar herritartasunekoak. Besteak papergabeak, baliogabeak.

Horregatik justizia (klimatikoaren) usaina hartu diet Los Angeleseko suteei.

Jenofa Berhokoirigoin, Argia, 2025eko urtarrilaren 13a

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

GRAMATIKA

- 1.- Eman testuko adizki hauen aspektua, aldia, pertsona eta modua (puntu 1): **paira dezagun[la]** (1-2), **[ba]dauzka** (8), **gaingaituko genuke** (12), **beharko lituzke** (14).
- 2.- Berridatzi azpimarratutako esaldi zatia, testuko esanahiari lotuz (puntu 1):
 - ... **aldaketak bideratu ezean**, ... (1)
 - “**Pacific Palisadeseko etxea babesteko...**” (7)
 - **Paradisukoa izanik ere**, ... (15)
 - ... **1841ean kolonizatu zituelako**. (17-18)
- 3.- Eman testuko hitz hauen kasua eta numeroa, eta zehaztu falta diren numeroak (puntu 1): **amamaren** (3), **suak** (6), **ketan** (7), **pribatuei** (7).

TESTUGINTZA: hiru galdera hauetatik, erantzun bi.

- 4.- Eman testuaren **tesia eta argudioak**. (100 hitz inguru) (2 puntu)
- 5.- Azaldu igorlearen **asmo komunikatiboa eta modalizazioa**. (150 hitz inguru) (2 puntu)
- 6.- Eman testuaren **egitura eta ideien antolamendua**. (150 hitz inguru) (2 puntu)

IRUZKIN KRITIKOA

- 7.- Egin ezazu **iruzkin kritikoa**. (180-200 hitz inguru) (3 puntu)